



euskal eliza bateruntz

herria 2000 elizaren VII jardunaldien amaierako komunikatua



Gaur egun Euskal Herriko testuinguru sozioekonomikoak, gatazka politikoaren egoerak eta nortasun kulturalak exijitzen dute justizia soziala, identitatearen errealizazioa eta benetako demokraziaren prozesu bat, euskal elizaren orinaldi eta geroaldiari begira beharrezko erreferentzia direlarik.

Duela 50 urte, Vatikanoko II. Kontzilioak eliza osoaren berri-zea eta gaurkotzea proposatu zuen, garaiaren seinale direnak kontuan hartuz, eliza solidarioa, elkarriketarako irekia, herri ezberdinetako kulturekin adeitsua eta behar-tsuenganako begirunea lortzeko asmoz.

Ildo honetatik jarraituz, egoera, jarrera eta seinale hauek aztertu ondoren, gaur egun sortzen diren premiazko erronka hauei proposamenak eskaintzen saiatu da Herria 2000 Eliza bere VII. Jardunaldietan, helburu argi batekin: Euskal Herrian, sufritzen duen munduan, elizak Jaungoikoaren presentziaren adierazpenez ohar dadin, baita bere askatasun grina entzun dezan. Hori helburutzat, herritarren eliza behartsu moduan berpiztu behar da, Jesusen mezua zabaltzeko gaitasunaz, salbamenaren eramaile eta gizon nahiz emakumeen itxaropena izanez.

Pertsona adituaren iritzietan oinarrituz, elkarriketa zabal eta irekiaren bitartez, Euskal Herrian bakea, elkarbizitza, askatasuna eta berdintasuna lortzea ahalbidetuko duten bideak baieztatu nahi izan ditugu. Gure eliza munduarekiko justizia seinale bizia izan dadin nahiko genuke, sufritzen dutenen, menpekotasunean daudenen eta soluziorik gabeko gatazka-ren biktimentzako itxaropena.

Sinestasan ebangelizatzailea eta askatasun eraginkortasunari dagokionez, testuinguru kritiko eta erabakigarri den honetan hona hemen gure proposamenak:

- Irekia, anitza, elkarriketaren aldekoa eta bere euskal nortasunarekiko leiala izan dadin. Behartsuen, marginatuen eta etorkineekiko abegitsua.
- Munduarentzako justizia seinale bezala aurkeztu dadin eta joka dezan, baita emakumeentzako itxaropena, beraien eskubide guztiak defendatuz bai gizartean baita elizan ere bai.
- Pertsona eta taldeekin sentibera eta arduratsua, baita ekonomia neoliberalak alderatutako gizatalde ahulenekin zein konpondu gabeko gatazka baten biktimekin, guztien giza eskubideak defendatu eta sustatzeko konpromisoa har dezan, espetsuek eta gizarteak maiz hautsitakoak.
- Bere azpiegitura guztietatik parte har dezan elkarbizitzarako eraginkor diren konponbideak bilatzen, gure arbasoen nortasun baloreak berreskuratzen, berradiskidetze eta bakearen alde egiten.
- Jatorri diskriminazioaren aurka, pertsona guztien duintasuna eta justizia soziala zein berdintasunaren alde borroka dezan.

Proposamen eta aukera hauek abiapuntutzat hartuta, bizko gizarte bat lortu eta Euskal Herriak askatasun, justizia eta demokrazia solidario batean garatu dadin, Herria 2000 Elizak bere konpromisoa azpimarratzen du, bereziki emakume zein gizon ahulen eta zapalduen alde egiten duen euskal eliza batekiko.

